

aitzitik



aitzitik =

= alderantziz

= kontrara

= kontrastez

Amorioz eta gogotik
dabiltzanen trabailuak ez dira
trabailu; **aitzitik**, hetan atsegin
hartzen da.



Axular, *Gero*, 1643

XLIX. kap. “Nola parabisuko bidea den erraz”

...errealitatea osatzen duten
oinarrizko kategoriak ez
daude “munduan”; aitzitik,
norberaren kulturak eratzen
ditu...



Steven Pinker, *Hizkuntza-sena* (ZIO bilduma-12)

Euskaratzailea: Garikoitz Knörr

Ez gogor egin gaiztoari. **Aitzitik,**
inork eskuineko masailean
jotzen bazaitu, bestea ere eskain
iezaiozu.

Polikarpo Iraizoz, *Yesukristo gure Yaunaren bizia*, 1934

Arranguratzeak ez du ezertarako
balio; aitzitik, etsipena
areagotzen du.

**Bi perpausen arteko
aurkaritza nabarmentzen
du **aitzitik** lokailuak.**

**Lehendabiziko perpausa,
aitzitik ez daramana, ezezka
doa gehienetan.**

Inoiz, **aldiz**, **berriz**, **ostera** eta horrelakoen lekuan agertzen da **aitzitik**:

**Bihotzak gauza bat eskatzen dit;
buruak, **aitzitik**, beste bat.**



Txinatarrek une hartan kokatzen dituzte gaur egun lurraldeeskubideak, bi nazioak mongolen mende erori ziren unean.

Tibetarrek, **aitzitik, garai urrun hura bi nazio subirano etsai bakar baten mende hurrenez hurren erori ziren aldi gisa gogoratzen dute.**

Wade Davis, *Argia munduaren ertzean* (ZIO bilduma-10)

Euskaratzailea: Iñaki Iñurrieta



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Baina, kontuz!

Aitzitik ez da **hala ere, areago**, eta halakoen baliokide:

Administrazioaren egintza guztiak
Administrazio Zuzenbidearen mende daude eta,
ondorioz, epaitegien kontrola jasan dezakete.
Hala ere, badira historikoki funtsezko arau
horren mende jarri ez diren egintza batzuk.

***Aitzitik, badira...**

Aitzitik aurkaritzazko lokailuaz, jakingarri gehiago aurkituko dituzu hemen:

EUSKALTZAINDIA (1990): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

